

**DANOBATGROUPEN HORNITZAILEEN
JOKABIDE KODEA**

Elgoibar, 2026eko urtarrilla

1 SARRERA

DanobatGroup S.coop. eta DanobatGroup osatzen duten enpresen (aurrerantzean, Danobatgroup) helburua da enpreson jokabideak eta enpresok osatzen dituzten pertsonen jokabideak indarreko legediari eta beren Jokabide Kodean ezartzen diren printzipio etikoei erantzutea. Negozio eredu arduratsu bat eraiki nahi dugu, epe luzera balio ekonomiko jasagarria sortzea bermatuko duena, gure erakundeko interes taldeak kontuan hartuta.

Jabetzen gara gure hornitzaileak, zuzenekoak zein zeharkakoak, funtsezko eragileak direla gure balio katean, eta funtsezko zeregina betetzen dutela gure helburuak lortzeko eta gure politikak eta estrategiak garatzeko. Beraz, gure hornitzaileek etika eta integritatea, gardentasuna, segurtasuna eta osasuna, ingurumen erantzukizuna, giza eskubideen errespetua eta halako praktika arduratsuak gauzatzea espero dugu, eta horretara animatzen ditugu. Horrek esan nahi du une oro bete behar direla aplikatzekoak diren estatuko eta nazioarteko legeak.

2 XEDEA

Hornitzaileen Jokabide Kode honetan, Danobatgroupen hornidura kateak osatzen dituzten zuzeneko eta zeharkako hornitzaile guztiek nahitaez bete behar dituzten gutxieneko jokabide aurreikuspenak eta printzipio etikoak ezartzen dira. Gure hornitzaileek Hornitzaileen Jokabide Kodearen edukia eta kode horren printzipio etikoak ezagutzeko eta betetzeko erantzukizuna dute.

3 APLIKAZIO EREMUA ETA BETETZEKO BETEBEHARRA

Hornitzaileen Jokabide Kodea Danobatgroupen hornitzaile zuzenei zein zeharkakoei aplikatzen zaie, negozio sektorea, kokapen geografikoa eta hornitzailearen jardura edozein dela ere. Danobatgroupen hornitzaile zuzenak Hornitzaileen Jokabide Kode honetan jasotzen diren eskakizunak eta jarraibideak beren hornidura kateetara helarazten ahaleginduko dira.

Gure hornitzaileei eskatzen zaie ezagutu eta bete ditzatela bai aplikatzekoak zaizkien lege eta erregulazio guztiak, bai Danobatgroupekin adostutako kontratu baldintzak. Funtsezkoa da, halaber, legeak eskatzen dituen baimen, lizentzia eta erregistro guztiak lortzea eta eguneratuta edukitzea.

4 LAN BALDINTZAK ETA GIZA ESKUBIDEAK

4.1 LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA

Langileen osasuna eta segurtasuna funtsezko faktoreak dira [Danobatgroupentzat](#). Beraz, hornitzaile guztiek bete behar dituzte beren enpresa jarduera garatzen duten leku guztietan arlo honetan aplikatzekoak zaizkien lege, erregulazio eta arau guztiak, erakundeko langileentzako ingurune seguru eta osasungarria bermatuz.

Horrek esan nahi du diseinu egokiak, laneko segurtasun prozedurak eta prebentziozko mantentze lanak erabili behar direla, eta, beharrezkoa denean, norbera babesteko ekipamenduak eman behar direla. Gainera, segurtasun informazioa eman behar da, langileak lan arriskuen aurka prestatu eta babesteko, bai beren instalazioetan, bai [Danobatgroupen](#) instalazioetan lan egiten dutenek osasunari eta segurtasunari buruz aplikatzekoak diren prozedurak eta enpresa jardueren koordinazioaren arloan aplikatzekoa den araudia betetzen dituztela bermatzeko.

Era berean, hornitzaileek beharrezko informazioa eman behar dute [Danobatgroupek](#) bere langileak eta ingurumena babestu ahal izateko (adibidez, segurtasun fitxak eta substantzia arriskutsuen erabilerari buruzko informazioa emanez).

[Danobatgroupek](#) bere hornitzaileei gomendatzen die osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistema egoki bat ezar dezatela (adibidez, ISO 45001 edo baliokidea), non langileen osasuna, segurtasuna eta ongizatea babesteko politikak sartuko diren.

4.2 LAN BALDINTZAK

Hornitzaile guztiek lan arloan aplikatzekoak zaizkien legeak eta erregulazioak errespetatu behar dituzte, honako eremu hauetan:

- **Indarrean dagoen legediaren arabera kontratatzea:** enplegatu guztiak herrialde bakoitzean indarrean dauden lan legeen arabera kontratatu behar dira. Lan harremana babesteko, lan baldintzak argi eta garbi zehaztuko dituen idatzizko kontratu bat behar da.
- **Lanaldia eta aparteko orduak:** enplegatuen lanaldiak eta lan egutegiak ez dituzte inola ere gainditu behar indarreko legediak ezarritako mugak.
- **Baimenak:** herrialde bakoitzean indarrean dagoen legediaren arabeko baimenak eduki beharko dira.
- **Soldatak eta mozkinak:** legeak eta akordio kolektiboek ezarritako gutxieneko soldatak eta mozkinak egon behar dira. Enplegu baldintzei

buruzko informazio argia eta ulergarria emango da, mozkinak barne, enplegatuentzako eskuragarria izango den formatuan eta hizkuntzan.

- **Elkartzeko askatasuna:** hornitzaileek Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) oinarritzko hitzarmenetako xedapenak bete behar dituzte, hau da, elkartzeko askatasunari, askatasun sindikalari eta negoziazio kolektiborako eskubidearen benetako aitopenari buruzkoak.

4.3 ESKLABOTZA ETA HAURREN LANA

Hornitzaileek konpromisoa hartzen dute lan beharturik, morrontzarik eta esklabotzarik –gizakien salerosketa barne– inola ere ez erabiltzeko. Horrek esan nahi du erakundeak ezin dituela pertsonak enplegatu mehatxuen, hertsapenen edo iruzurren bidez.

Era berean, hornitzaileek ziurtatu behar dute ez dela haurren eskulanik erabiltzen lanerako, eta ez dela erabiltzen haurren eskulanetik datorren produkturik edo zerbitzurik. Hornitzaileek Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) xedapenak betetzen direla zainduko dute, lan behartuari eta haurren lanari dagokienez.

4.4 AUKERA BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA

Hornitzaileak behartuta daude pertsona guztiak duintasunez eta errespetuz tratatzera, lan aukera eta baldintza ekitatiboak emanez, enplegatuaren edo lanpostu baterako hautagaiaren ezaugarri indibidualak kontuan hartu gabe. Hor sartzen dira generoa, genero identitatea edo genero adierazpena, adina, nazionalitatea, arraza, etnia, larruazalaren kolorea, aurrekari kulturalak, erlijioa edo sinesmena, desgaitasuna eta diskriminazio iturri izan daitekeen beste edozein inguruabar, jazarpenik gabeko lantoki bat bermatzea eta aukera berdintasuna sustatzea helburu.

Gainera, hornitzaileek babestu egin beharko dituzte langileak umiliazio, hitzezko indarkeria, indarkeria psikologiko, fisiko eta sexualaren aurrean, baita pertsona diskriminatzen edo kaltetzen duen edozein jarrera edo portaeraren aurka ere.

5 INGURUMENA

Danobatgroupek hornitzaileei eskatzen die ingurumenari buruz aplikatzekoak diren lege baldintza guztiak betetzeko eta beren jarduera ingurumen inpaktu negatiboak minimizatzen premiarekin egiteko; orobat, positiboki baloratuko da ingurumen jardueran etengabeko hobekuntza egiten dela erakustea.

Danobatgroupek bere hornitzaileei gomendatzen die ingurumen kudeaketako sistema egoki bat ezar dezatela, etengabeko hobekuntzara bideratua (adibidez, ISO

14001 edo baliokidea), ingurumen errendimendua eraginkortasunez kudeatzeko politikak eta prozedurak barne hartuko dituena.

5.1 KUTSADURA

Oro har, hornitzaileek airearen, uraren eta lurzorua gaineko edozein kutsadura mota prebenitu eta minimizatu behar dute, baita ingurumenean eta/edo pertsonengan ondorio kaltegarriak eragin ditzaketen kutsadura akustikoa eta bestelako kutsadurak ere.

5.2 BEROTEGI EFEKTUKO GASEN EMISIOA (BEG) ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

Klima aldaketaren erronkei aurre egiteko eta berotegi efektuko (BEG) zero gas emisio netoko hornidura kate baterantz aurrera egiteko, [Danobatgroupek](#) gomendatzen du hornitzaile guztiek aurrera egin dezatela energia kontsumoa monitorizatzen eta murrizten, bai eta beren jardueratik eratorritako berotegi efektuko gasen emisioak murrizten ere. Positiboki baloratuko da hornitzaileek ahal den guztia egitea konpainia osoan energia eta berotegi efektuko gasen (BEG) kontsumoa murrizteko helburuak identifikatzeko, neurtzeko eta ezartzeko.

Gainera, ahal den guztietan, hornitzaileek aukeratu behar dituzte energia iturri eta material berriztagarriak eta birziklatuak, eta/edo berotegi efektuko gas (BEG) gutxi isurtzen dutenak.

5.3 URAREN KUDEAKETA

Positiboki baloratuko da hornitzaileek ur kontsumoa gainbegiratu eta aztertzea, hobetzeko aukerak identifikatu eta kontsumoa minimizatu ahal izateko. Gainera, hornitzaileek neurri egokiak hartuko dituzte beren instalazioetan eta/edo hornidura kate propioetan ur kontsumoa minimizatzen.

Ura modu arduratsuan erabiliko eta prozesatuko da, batez ere ur eskasiak kaltetutako eremu batean dauden hornitzaileen eta kontsumo maila handiko hornitzaileen kasuan. Gainera, hornitzaileek beren eragiketarako hondakin ur guztiak tratatu eta garbitu beharko dituzte, modu egokian eta aplikatzekoak diren lege eta araudien arabera.

5.4 SUBSTANTZIA KEZKAGARRIAK ETA PRODUKTU KIMIKOAK

Hornitzaileek substantziak, produktu kimikoak eta material arriskutsuak identifikatu eta deklaratu beharko dituzte, eta horien mugimendu, biltegiatze, prozesatze,

birziklatze, erabilera eta ezabaketa segurua bermatu beharko dute. Hornitzaileek konpromisoa hartzen dute material eta substantzia kimikoen kontrolari eta material eta substantzia kezkarri, kutsatzaile eta/edo debekatuen murrizketari aplikatzen dakizkiekeen lege eta erregulazio guztiak betetzen direla ziurtatzeko (RoHS erregulazioa, REACH eta CLP, eta TSCA Estatu Batuetan, adibidez), beharrezkoak izan eta [Danobatgroupek](#) eska ditzakeen informazioa, dokumentazioa eta ziurtagiriak aurkeztuz.

Hornitzaileek aktiboki lan egin behar dute inpaktu kaltegarriak eragiten dituzten produktu kimikoen kopurua mugatzeko eta murrizteko, eta osasunerako eta ingurumenerako ahalik eta arrisku txikiena dutenak hautatzeko. Hornitzaileek arriskuen ebaluazioak egin behar dituzte, eta edozein inpaktu negatibo minimizatzeko neurriak hartu.

Era berean, hornitzaileek ziurtatu beharko dute langileak kontziente direla eta produktuen segurtasun praktikei eta larrialdi kasuetarako prestakuntzari buruzko jarraibide eta trebakuntza berezi eguneratuak dituztela.

5.5 EKONOMIA ZIRKULARRA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA

Hornitzaileek etengabe erakutsi beharko dute erantzukizuna dutela, eta ahaleginak egin beharko dituzte hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko, hobetzeko aukerak sustatzeko eta produktuaren bizi zikloan zehar hondakinak minimizatzeko, horrela zirkulazio sistema jasangarri bat eraikiz.

5.6 BIODIBERTSITATEA ETA EKOSISTEMAK

[Danobatgroupek](#) hornitzaileei eskatzen die ekosistema naturalaren babesa bermatzea, bereziki desagertzeko arriskuan dauden habitaten babesa eta baliabide naturalen erabilera jasangarria. Hornitzaileek ahaleginak egingo dituzte hornidura kateetan deforestaziorik eta biodibertsitatearen eta ekosistemen degradaziorik sar ez dadin, aplikatzekoa den legediaren arabera.

Era berean, DANOBAT GROUPEn hornitzaileek errespetatu eta bermatu egin behar dute hornitzaileek egindako jarduerak kaltetu litzaketan gutxiengoaren eta herri indigenen eskubideei buruzko indarreko legedia guztia, bai eta lurrerako, basoetarako, uretarako eta abarretarako eskubideei buruzko legedia ere, pertsonen eta landa komunitateek, indigenek eta tokiko komunitateek luraren eskuragarritasuna, erabilera, kontrola eta jabetza izan dezaten, eta hornitzaileen jarduera horiek identitate kulturalaren, autonomiaren eta sostenguaren iturriak kaltetu ez dituzaten, izendatutako kolektibo horiek beren bizilekutik nahitaez ateratzea ekar dezakeen zuzeneko edo zeharkako inpaktu oro saihestuz.

Hala berean, DANOBAT GROUPen hornitzaileek konpromisoa hartzen dute aplikatzekoa den legedia guztia betetzeko eta beren jarduerak animalien ongizatearekin eta bizi diren ekosistemarekin lerrokatuta daudela bermatzeko, DANOBAT GROUPen hornitzaileen jarduerak horietan inolako kalterik eragin ez dezaten.

6 MINERALEN ETA MATERIALEN EROSKETA ARDURATSUA

[Danobatgroupen](#) helburua da lehengaiak erabiltzea, baldin eta lehengai horiek erauzteak, ekoizteak, garraiatzeak, merkaturatzeak, eraldatzeak eta esportatzeak ez badio, zuzenean edo zeharka, giza eskubideen urraketari mesede egiten, eta ez badu gatazka armaturik finantzatzen, osasun eta segurtasun arazorik sortzen, ingurumena kutsatzen, deforestaziorik eragiten, edo aplikatzekoa den araudia ez bada betetzen.

[Danobattroupek](#) positiboki baloratuko du lehengaien hornitzaileek, gatazka mineralak (gatazka guneeetatik eta arrisku handiko eremuetatik datozen mineralak, hala nola tantalioa, eztainua, tungstenoa eta urrea) dituzten produktuen hornitzaileek eta giza eskubideen urraketari, lan behartuari, gatazka armatuen finantzaketari, klima aldaketari eta deforestazioari mesede egiteko arriskua duten beste material batzuk hornitzen dituztenek behar bezalako ardura prozesuak ezartzea eta beren hornidura kateen trazabilitatea eta arriskuen kudeaketa ziurtatzeko politikak eta prozesuak inplementatzea, bai beren eragiketetan, bai uretan gora, beren hornitzaileekin eta hornidura katean zehar, hornidura kateen kontrol puntu gakoetan auditoretzak sustatuz (adibidez, gatazka mineraletarako eta beste mineral eta metal batzuetarako galdategiak eta findegia).

Ildo horretan, hornitzaileek [Danobattroupi](#) hornitzen dizkieten lehengai eta materialekin lotuta aplikatu beharreko erregulazioa beteko dute, adibidez, gatazka mineralari lotutako erregulazioa, EUDR erregelamendua, lan behartua prebenitzera bideratutako lege baldintzak, eta abar.

Aurrekoarekin koherente izanik, hornitzaileek konpromisoa hartzen dute [Danobattroupi](#) laguntzeko gatazka mineralari lotutako arriskuak identifikatzeko, prebenitzeko eta arintzeko ahaleginean, bai eta giza eskubideen urraketak, klima aldaketa eta deforestazioa eragiteko arriskua duten beste material batzuei dagokienez ere. Horretarako, hornitzaileek [Danobattroupekin](#) lankidetzan jardungo dute:

- Hornidura kateari, eragiketei, produktuei eta horien ezaugarriari buruz eskatutako informazioa emanaz (adibidez, hornidura kateko kideen identifikazioa, emisioei buruzko datuak, etab.).

- Inpaktu kaltegarriak prebenitzera eta arintzera bideratutako ekintzen garapenean parte hartuz eta lagunduz, gutxienez, aplikatzekoak diren lege baldintzak betez.

Hornitzaileak ahaleginduko dira beren hornidura kateetan antzeko konpromisoa eskatzen, hartutako neurrien hedapena sustatuz.

7 USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

Hornitzaileek ez dute inolako eroskeria edo ustelkeriatan parte hartuko, eta ez dute babestuko, ezta onartuko ere, ez zuzenean ez zeharka. Influentzia trafikoa debekatuta dago. Hornitzaileek ez dute bidegabeko onurarik eskainiko edo onartuko hirugarren batentzat edo hirugarren batengandik, izan pribatua edo izan publikoa, negozioak edo lehentasunezko tratamendu bat lortzeko edo mantentzeko. Onura horiek, eskudirua ez ezik, lan aukerak, mesedeak, bidaiak, bideratze ordainketak, zorrak edo opariak ordaintzeko promesak eta legez kanpoko aisialdi jarduerak ere barne har ditzakete.

Hornitzaileek zorrotz beteko dituzte kapitalen zuriketarekin eta terrorismoaren finantzaketarekin lotuta aplikatzekoak zaizkien lege nazionalak eta nazioartekoak. Gainera, agintaritza arduradunekin lankidetzan jardun beharko dute kapitalen zuriketaren eta legez kanpoko jardueren finantzaketaren aurkako borrokan, hala eskatzen zaienean.

Era berean, hornitzaileek negozioak modu ireki eta gardenean egin beharko dituzte, erabaki objektiboak eta profesionalak hartzea oztopa dezaketen interes gatazkak saihestuz.

Inportazio eta esportazio jardueretan, hornitzaileek bermatuko dute bete egiten direla bai aplikatu beharreko legediak bai gainerako operadoreek ezarritako kanpo araudiak ondasunen, zerbitzuen eta informazioa inportatzearen eta esportatzearen inguruan ezarritako arau guztiak.

Erabat debekatuta dago kasuan kasuko herrialdeetako zehapen zerrenda ofizialetan agertzen diren pertsonekin edo enpresekin negozioak egitea, entrega prozesua edozein dela ere. Berariaz debekatuta daude kontrabandoarekin zerikusia izan dezaketen jarduerak.

Hornitzaileek lehiaren abusu edo murrizketa bidegabea izan daitekeen jokabide oro saihestuko dute.

8 INFORMAZIOAREN KUDEAKETA ETA ENPRESAREN BABESA

8.1 KONFIDENTZIALTASUNA, DATU PERTSONALEN BABESA ETA PRIBATUTASUNA

Hornitzaileek datu pertsonalen pribatutasunaren eta babesaren arloan aplikatzekoak diren lege, erregelamendu eta araudiak betetzen direla bermatzeko neurri egokiak aplikatuko dituzte, eta [Danobatgroupekin](#) duten harremanaren ondorioz jasotzen duten informazioaren osotasuna eta konfidentzialtasuna errespetatu eta zainduko dute. Horretarako, hornitzaileek behar adina segurtasun neurri hartuko dituzte erabilera desegokiaren, kudeaketa desegokiaren, faltsifikazioaren, lapurretaren eta dibulgazio bidegabearen aurka babesteko.

8.2 ZIBERSEGURTASUNA

Era berean, [Danobatgroupek](#) informazioaren segurtasunarekiko eta zibersegurtasunarekiko konpromisoa hartzeko eskatzen die hornitzaileei, segurtasun fisiko eta elektronikoko prozedura egokien bidez datuen babesa ziurtatzeko. [Danobatgroupek](#) bere hornitzaileei gomendatzen die informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema bat eta zibersegurtasuneko jarraibideak ezar ditzatela (adibidez, ISO 27000 edo baliokide bat), gainbegiratze politikak eta prozesuak barne hartuko dituen, informazioa arau hausteetatik, zibererasoetatik eta ziberintzidentetatik babesteko.

8.3 JABETZA INTELEKTUALAREN ETA INDUSTRIALAREN BABESA

Hornitzaileek jabetza intelektualaren eta industrialaren gaineko eskubideei buruzko legedia eta araudia bete beharko dute. Produktuak, programak, sistemak eta ezagutza teknologikoak arlo honetan indarrean dagoen araudia errespetatuz erabiliko dira.

Era berean, hornitzaileek metodo eraginkorrak ezarriko dituzte, hornitzen dituzten produktuetan faltsututako piezak eta materialak sartzeko arriskurik egon ez dadin.

9 KUDEAKETA SISTEMA ETA BEHAR BEZALAKO ARRETA

Behar bezalako arretak, berez, arriskuak kudeatzeko prozesu jarraituari egiten dio erreferentzia, enpresen jarduerak kliman, baliabideetan eta pertsonengan izan ditzakeen inpaktuak identifikatu, prebenitu, arindu eta justifikatzeko.

Danobatgroupek konpromisoa hartu du hornidura kate etiko eta arduratsuak eraikitzeko, eta positiboki baloratuko ditu hornitzaileek kudeaketa sistema egokiak ezartzeko eta mantentzeko egiten dituzten aurrerapenak, Hornitzaileen Jokabide Kode honetan jasotako alderdiak betetzen direla ziurtatzeko; bereziki, behar bezalako arreta emateko prozesuak –hornidura katearen etapa guztietan pertsonen eta ingurumenaren gaineko inpaktuak eta arriskuak murriztera bideratuak– ezartzea, enpresaren tamainara eta egoeretara egokitzuz, eta nazioarteko estandarrak erreferentziazat hartuz, hala nola ELGaren Gida, enpresa jokabide arduratsuari behar bezalako arreta emateko, eta NBERen Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidariak.

10 BARNEKO INFORMAZIO SISTEMA

Ez-betetzere baten berri duen pertsona orok zuzenean jakinarazi beharko du **Danobatgroup** osatzen duten enpresen Informaziorako Barne Sistemaren bidez.

Barneko informazio sistemaren jakinarazpen guztiak Informatzailea Babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen eskakizunak eta datu pertsonalak babesteko araudia betez kudeatuko dira.

Danobatgroupek barneko informazio sistemara aurkezten diren jakinarazpenen existentziari eta edukiari buruzko konfidentzialtasuna bermatzen du. Era berean, barneko informazio sistemak jakinarazpena modu anonimoan egiteko aukera bermatzen du.

Debekatuta dago errepresalia bat edo edozein ondorio negatibo dakarren neurririk hartzea jakinarazpen bat egin izanagatik.

Hornitzaileek aplikatzekoak zaizkien lege eskakizunak errespetatzen dituzten informazio sistemak eduki beharko dituzte, eta, nolana ere, konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua bermatu beharko dituzte.

11 HORNITZAILEEN ERANTZUKIZUNA

Hornitzaileek **Danobatgroupen** Hornitzaileen Jokabide Kodearen printzipioekin duten konpromisoa funtsezkoa da harreman komertzial etiko eta jasagarria

izateko. Hornitzaileek, Kode hau aplikatuta, beren praktikak eta politikak ezarritako estandarrekin bat datozela ziurtatzen dute, eta [Danobatgroupekin](#) lotutako eragiketa guztietan integritate maila handia edukitzeko konpromisoa hartzen dute.

[Danobatgroupen](#) Hornitzaileen Jokabide Kodearekin bat egitea funtsezko baldintza da [Danobatgroupek](#) hornitzaileak hautatzeko prozesuan. Kodea sinatzean, hornitzaileek onartzen dute bertan jasotako printzipioak [Danobatgroupekin](#) egindako kontratuei eta etorkizunean izango dituzten harreman komertzial guztiei aplikatuko zaizkiela. Konpromiso loteslea da, eta [Danobatgroupek](#) ezarritako praktika onen gutxieneko estandarrak errespetatzea eta aplikatzekoak diren lege eta erregulazio guztiak betetzea eskatzen du.

[Danobatgroupek](#) beretzat gordetzen du bere hornitzaileek Jokabide Kode hau ezartzen eta etengabe betetzen dutela gainbegiratzeko eskubidea. Egiaztapen hori autoebaluazio galdetegien, hornitzaileen instalazio eta jardueren auditoretzen eta bestelako mekanismoen bidez egin ahal izango da, hornitzaileei aldez aurretik jakinarazita. Gainera, hornitzaileek dokumentu eta erregistro egokiak izango dituzte erregulazioak betetzen direla ziurtatzeko.

Hornitzaileek Hornitzaileen Jokabide Kode honetan jasotakoa ez betetzeak ondorioak izan ditzake [Danobatgroupekin](#) duten kontratu harremanean, aplikatzekoak diren beste lege eta administrazio ekintza batzuei kalterik egin gabe.

[Danobatgroupen](#) eta hornitzaileen arteko komunikazio irekia eta zintzoa sustatzen da, edozein ez-betetzeri gardentasunez eta eraginkortasunez aurre egiteko, horrela merkataritza harreman sendoa eta etikoa bermatuz.

Hornitzaileen Jokabide Kode honen interpretazioari edo aplikazioari buruzko edozein zalantza danobatgroup@danobatgroup.com helbide elektronikoaren bidez helaraz dakioke [Danobatgroup](#) enpresari.